



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2019ko urtarrilaren 23koa, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdiaren 2019ko urtarrilaren 22ko ebazpena aldatzen duena.

Hezkuntza sailburuaren 2018ko urriaren 23ko Aginduaren bidez, urriaren 30eko 209 zbk. EHAA, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egin zen.

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpenaren bidez, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzak ebatsi ziren.

Aipatutako ebazpenean eta beren eranskinetan aurkitutako akatsak direla eta

E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- Emandako diru-laguntzen zenbateko osoa aldatzea, guztira 173.250 euro.

Bigarrena.- Onuradunen zerrenda eta beraiei dagozkien diru-laguntzak aldatzea ebazpen honi atxikitako I. eranskinaren arabera.

Bigarrena.- Ordezkoen zerrenda aldatzea, II. eranskinean zehaztutakoaren arabera.

Laugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 23a



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA